

JAKI ETA LABORE TRANSGENIKOEN AUZIA, ARAZO ZIENTIFIKOA OTE?

Dударик gabe, arazo zientifikoa ere bada, baina transgenikoen afera ez da kontu zientifiko hutsa. Zientziak ez dauka –ez du zertan eduki- azken hitza auzi honetan. Arazoa nola plazaratzen ari den ikusita, kontrakoa dela ematen du sarritan, zoritxarrez. Honetan ere, manikeismo zikinetan hipersinplifikatuta azaldu nahi zaizkigu, maiz, gauzak. Egunotan egiten ari den gerran bezala: EEBBren aldekoa ala Bin Ladenen aldekoa? Galdera gaizki jarrita dago, noski, benetako erantzun baliagarrietarako lekurik ez duelako uzten.

Gure kasuan ere, batzuk nahi lukete arazoa hauxe izatea: “transgenikoen alde ala kontra”, edo –adierazpide sinonimoak balira lez-: “bioteknologiaren alde ala kontra”; eta auzia horixe izaki, juez gorena, noski, zientzia.

Baina batzuen jarrera kritikoa ez doa, printzipioz, teknologia modu bat “in abstracto” zalantzan jartzen, nahiz eta teknologiak ez diren –sinestarazi nahi digutenaren kontra- erabat eta guztizko neutralak. Teknologia zientzia aplikatua baino ez da, eta zientzia bera ere ez da erabat neutrala. Zientzia eta teknologia ez dira guztizko absolutuak; momentu bakoitzean zientziaren zein teknologiaren arlo eta modu zehatz batzuk dira ikertzen eta azaltzen direnak. Horretarako hautu bat egin be-

har da, eta hautuak beti dira interesatuak. “A fortiori”, zientzia eta teknologiaren erabilera neutralik ez dago, hortaz. Hala ere, jarrai diezaiodan –digresio hori utzita- interesatzen zaidan ildoari.

Esan bezala, arazoa ez da teknologia baten ongia ala gaizkia baiestea, ezpabere teknologia horren erabilerak ekarritako produktu jakin batzuk gurean merkaturatzeko zein diren ezarri behar ditugun baldintzak zehaztea baino. Produktu jakin horiek, normala denez, ez datoz kontesturik gabe, huts-hutsean, biluzik eta zerutik; kontestu batean datoz, ugazaba baten eskutik datoz, ezaugarri batzuekin datoz, baldintza batzuetan datoz. Batere abstrakziorik ez, beraz.

Zein produkturi buruz ari garen? Arto eta soia transgenikoei buruz, batez ere. Injinerutza genetikoak merkaturako prest utzi dituen produktuak nekazari produktuak dira, gehien bat. Izurri edo herbizida batzuei aurre egiteko (teorian) gai izan daitezkeen landare transgenikoak dira merkatuan ezagunenak. Enpresa transnazional batzuk (Monsanto, Novartis,...) mundutik ari dira zabaltzen euren produktu berri horiek, baina Europar Batasunean oraindik ez zaizkie ateak zabaldu. Horrek ez du esan nahi ateak legez guztiz itxita daudenik ere. Esate baterako, arto transgenikoaren barietate batzuen komertzializazioa onartu egin zuen Europar Batzordeak 1996an. Hala ere, estatu gehienek ez dituzte barietate horiek formalki ontzat hartu, eta, aldi berean, Europako instituzioek geldiarazi zituzten barietate gehiago onartzeko prozedurak. Horregatik esaten ohi da “de facto” moratoria bat dagoela indarrean Europar Batasunean landare transgenikoak merkaturatzeko auziaz. Egoera ez da, nolana ere, berdina estatu guztietan. Estatu espainiarra da, hain zuzen, permisiboena. Artoarena ezezik, soia transgenikoaren sarrera ere permititu du, legalitate aldetik oso zalantzazkoa den erabaki bat hartuta.

Arestian, Europar Batasuneko instituzioek hasiera eman diote prozesu bati zeinaren bitartez erabakiko den egun inda-

rrean dagoen “de facto”ko moratoria horrekin jarraitu ala ez. Iragartzen den joera moratoria bertan behera uztearean aldekoa da. Eta batzuk kontra gaude, hots, moratoria jarraitzearen aldekoak gara, gaur egun ematen ez diren bi baldintza ziurtatu arte: Bata, teknologia genetikoaren barneratzen duten produktu berri horien promotoreen erantzukizuna bermatzea, ingurugiroari, nekazariei eta kontsumitzaileei produktu haien eraginez egin diezazkioketen kalteengatik. Bigarrenik, identifikazioa, etiketa batzuen bidez zera azaltzeko: produktu batek, merkaturara irten arteko prozesu osoan zehar, genetikoki eraldatutako organismorik baduen ala ez.

Zergatik exijentzia horiek? Zein da gure beldurra? Alde batetik, komunitate zientifikoak oraindik ez duela erabat eta aho batez argitu produktu transgeniko horiek osasunerako nola edo halako kalterik eragin ez dezaketetik. Nahi dena esango da, baina eztabaida zientifikoak zutik dirau, eta bitartean ezin da jolasean ibili. Eztabaida zientifiko signifikatiborik ez balego beste kontu bat litzateke, baina hori ez da kasua. Eta horretaz, onena erantzukizun legalaren aurretiko ezarpena da. Zenbat aldiz entzun dugu, zertan edo hartan, lasai egoteko, inolako eraginik ez zela izango,.. eta gero gertaezina zen hura gertatu? Adibideak behar al dira? Produktuon merkaturatzearekin lukratuko direnak, beraz, balizko eraginengatiko erantzule egin behar ditugu.

Baina, hasieran esan dugun bezala, arazoa ez da -bakarrik, edo bereziki- zientifikoa. Badago beste arlo inportanteago bat inolako komunitate zientifikoaren adostasunik edo benedikaziorik behar ez duena. Azken batean, labore transgeniko hauekin egiten diguten promesa (edo saldu nahi diguten motorra) zera da: laborantza hobea, produktiboago eta garbiago ekarriko digutela, eta munduko gosea lurperatu ahal izango dela. Dena gezurra! Gezur iraingarria! Iraingarria, zeren eta oso gauza jakina baita gosearen problema ez dela teknologikoa. Ez dago jaki faltarik, banaketa da arazoa.

Gezur berdin-berdinak entzun genituen askoz lehenago ere, 60ko hamarkadan, "nekazaritzaren iraultza" zeritzon hartan. Monolaboreetan zentratutako eta pestizidaz beteriko nekazaritza mekanizatu berri harekin dena konponduko zen..... eta ezer ez da konpondu: herri pobre eta aberatsen arteko diferentziak handiagoak dira; egunero 35.000 pertsona hiltzen dira gosez eta 1.500 milioik desnutrizio arazoak ditu.....Baina ez hori bakarrik. Nekazaritzarako lurak gero eta gutxiago dira, produkzio intentsiboak eragindako higadura eta agortzearen ondorioz; lur eta akuifero gehienak sustantzia toxikoek kutsatuak daude; izurrien kalteak ia bikoiztu egin dira, eta hainbat eta hainbat intsektu ta belar txar produktu fitosanitarioei aurre egiteko gai bilakatu dira; nekazaritzaren dibertsitate genetikoa gainbehera doa proportzio beldurgarrietan.....

Nekazaritza bioteknologiko edo transgeniko berri honek bide horretatik jarraitzera baino ez garamatza. Eta emaitzak ikusiak ditugu. Kurioso da: orain dioskue beraiek sortutako problemetatik libratuko gaituztela. Ez, eskerrik asko!. Oso gauza bestelako bat behar dugu. Oso nekazaritza bestelako bat nahi dugu Horregatik, guztiarengatik etiketa berezien bidez informazioa eta gardentasuna dira ezinbesteko baldintzak moratoria bat bertan behera utzi ahal izateko. Zeren eskubidea osoa baitugu hazi eta landare transgenikoei ezetz esateko, ez ,dagoeneko, osasunaren inguruko arrazoi zientifikoengatik, baizik eta nahi dugun nekazaritza ereduaren inguruko arrazoi sozio-ekonomikoengatik ere.

Eta ez dago dena esanda. Problemaren atal inportanteenetarikoa beste hau da: produktu transgeniko hauek menpekoago egingo dutela nekazaria. Urterik urte norberak haziak gorde eta selekzionatu beharrean, erosi beharko dizkio transnazional bati; bai eta royalty bat ordaindu ere enpresa horrek pribatizatutako gai genetikoaren gaineko patentea duelako.

Jabier Erize

01-11-02